



San Antonio, 2 – 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 00 05 00
www.itzarri.eus

Onuradun agurgarria,

Informatzen zaitugu prestazioa kobratzeko ez dagoela inolako eperik, kontingentzia gertatu ondoren, nahi denean eska daiteke. Kobratu nahi izanez gero, eskabidea bete eta sinatu behar duzu, eta zehazten zaizun dokumentazioarekin batera bidali. Honela aurkez dezakezu:

- Posta arrunta: San Antonio kalea, 2 – 01005 Vitoria-Gasteiz
- Posta elektronikoa: prestaci@itzarri.eus
- Zuzenean Itzarri Enpleguko BGAEko bulegoan

Itzarri Enpleguko BGAEko prestazioa kudeatu baino lehen ordainketaren inguruan fiskalki aholkatzeko gomendatzen dizugu. Bereziki, BGAE bat baino gehiago izanez gero.

Halaber, prestazioa kobratzeari buruzko informazio fiskala doakizu. Erantsitako 145 ereduak, soilik Estatuko Ogasunean aitortzen egiten duten pertsonak bete behar dute. Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia webgunean ("www.agenciatributaria.es") deskarga daiteke.

Jarraian aurkituko duzun informazio fiskala orientazio gisa baino ez da aurkezten. ITZARRI ENPLEGUKO BGAEak ekarpenak egitean, zein prestazioen tramitazioan, ez du inolako betebeharririk bere gain hartzen, eta ez die zerga- eta/edo lege-aholkularitzarik ematen bazkide eta/edo onuradunei. Ondorioz, erakundea ez da prestazio edo ekarpen bakoitzari aplikatu beharreko tributazioaren arduradun izango, Zerga-administrazioek prestazioa kobratzen duen edo ekarpena murriztatzen duen pertsonarengan gerora egiten den Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortzearen berrikuspen batek izan dezakeen eragin fiskal negatiboa ere. Bazkide eta onuradun guztiei, haien zerga-administrazioarekin eta aholkularitza-fiskalarekin zerga-arloan behar bezala aholkatzea gomendatzen zaie.

Zure esanetara gaude sortzen zaizun edozein zalantza argitzeko.

Adeitasunez,



San Antonio, 2 – 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 00 05 00
www.itzarri.eus

PRESTAZIOA KOBATZEARI BURUZKO INFORMAZIO FISKALA

BGAE batetik jasotako prestazioak errenta aitopenean lan-etekin moduan aitortu behar dira kobratutako ekitaldian, eta honako zerga-ondorioak izango dituzte.

Euskal Autonomi Erkidegoan baliozko informazio fiskala.

ZERGA-ONDORIOAK

Heriotza:

Itzarri Enpleguko BGAEk langile baten heriotzagatik ematen duen laguntza onuradunen errenta-aitopenean jaso behar da; alabaina, dohaintzen eta oinordetzen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira. Laguntza horrek PFEZren gainean izango dituen zerga-ondorioak honakoak dira:

Kapital gisa kobratutakoa

BGAE batetik kapital moduan jasotako lehen prestazioa 300.000 euroetaraino, %60an lan-etekin moduan errenta aitopenean sartuko da (% 100ean hobaririk ez badago); ekitaldian zehar jaso diren gainerako diru-sarrerei gehituz. Hobaria prestazio osoaren %40koa izango da, baldin eta lehenengo ekarpena egin zenetik 2 urte igaro badira. Hobari hori aplikatuko zaie zergaldi berean kapital gisa kobratu diren prestazio guztiei (BGAE ezberdinetakoei); beraz, bazkide beraren BGAE bat baino gehiagoko onuraduna bazara, zergari begira, agian komeni zaizu ekitaldi berean eskatzea prestazio guztiak.

KAPITAL PARTZIAL moduan kobratzea erabakitzen baduzu, kontuan hartu, **hobaria lehen eskuratzean ezarriko dela**, 300.000 euroetaraino.

Foru Aldundiak urtero onesten dituen taulen arabera egingo dira atxikipenak prestazioetan, eta hobaria aplikatu osteko prestazioa etekin moduan hartuko da (horretarako eskubidea izanez gero). Kasu guztietan, ardurapean seme-alabarik ez duten pertsonentzako atxikipena hartuko da kontuan.

Errenta gisa kobratutakoa

Zergaldi jakin batean BGAE batetik jasotako prestazioa lan-etekin moduan sartuko da % 100ean errenta aitopenean; ekitaldian zehar jaso diren gainerako sarrerei gehituz.

Foru Aldundiak urtero onesten dituen taulen arabera egingo dira atxikipenak prestazioetan. Kasu guztietan, ardurapean seme-alabarik ez duten pertsonentzako atxikipena hartuko da kontuan.

HERIOTZA PRESTAZIO ESKAERA	
Hildakoaren izen-abizenak:	NAN
Onuradun/en izen-abizenak:	NAN
TELEFONOA:	

HELBIDE FISKALA
<input type="checkbox"/> Araba/Alava <input type="checkbox"/> Bizkaia <input type="checkbox"/> Gipuzkoa <input type="checkbox"/> Nafarroa <input type="checkbox"/> Estatua <input type="checkbox"/> Internazionala

KOBRATZEKO MODUA
– KAPITAL: <input type="checkbox"/> Guztia (zenbateko guztia) <input type="checkbox"/> Partziala _____ Euros
– HILEKO FINANTZA ERRENTA: Errentaren zenbatekoa _____ Euro

Honako hau sinatzen duen/duten onuradunak/ek jakinarazten du/te bazkidearen heriotza dela eta, dagokion prestazioa Itzarri Enpleguko BGAERI eskatzen diola/diotela:

.....n,(e)koren(e)an

Onuradun/en sinadura

ESKAERARI ERANTSI BEHARREKO DERRIGORREZKO EGIAZTAGIRIAK
<ul style="list-style-type: none"> – Hildako pertsonaren eta onuradunaren NANaren fotokopia. – Banku-kontuaren ziurtagiria edo banku-laburpen baten fotokopia, non onuradunaren kontuaren titulartasuna azaltzen den. – Erregistro Zibilak emandako langilearen Heriotza-ziurtagiriaren fotokopia. – Justizia Ministerioak luzatzen duen azken borondate agiriaren fotokopia. <p>Onuradunak izendatuta izanez gero, Itzarri Enpleguko BGAERen onuradun izendapen dokumentuaren eta testamentuaren artean berriena hartuko da kontuan. Azken kasu horretan, haren fotokopia aurkeztu beharko da.</p> <p><i>Onuradunak berriaz izendatu ezean, familia-liburuaren fotokopia azken kiderenganaino, edo bizikidetzako-ziurtagiria, (afektibitate-harremana duen edozein pertsonarekin ezkondata edo elkartuta balego). Onuradunen lehentasun-ordena honako hau da:</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ezkontidea edo izatezko bikotekidea. 2. Seme-alabak. 3. Aurrekoa. 4. Neba-arrebak. 5. Oinordeko legalak.

Arduraduna	ITZARRI ENPLEGUKO BGAE - San Antonio kalea, 2 behe - 01005-VITORIA-GASTEIZ Tel.: 945 000 500 NIF: V01373885
Xedea eta Zilegitasuna	Prestazioak, uko egiteak, intsuldaketak, ekarpen berriak eta prestazioei eragiten dien edozein egoera edo elementuak kudeatzea. Atxikipenak fiskalki kudeatzea. Bahitura eskaerei erantzutea. Erreklamazioak eta kekak kudeatzea.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pentsio Erakundeak (bazkide osoaren baimenarekin) ▪ Arabako / Bizkaiko / Gipuzkoako / Nafarroako Foru Ogasuna ▪ Foru Ogasunak
Eskubideak	Pertsona interesdunak sartu, zuzendu, bere datuak ezabatu eta tratamendua mugatu edo aurka egiteko eskubidea du. Horretarako, tratamendu-arduradunaren zuzendaritzari idatzi bat bidali..
Informazio gehigarria	Informazioa gehi dezake itzarri@itzarri.eus helbidera idatzi bat bidaliz edo hurren helbidera zuzenduz: www.itzarri.eus/dokumentazioa